

Atentatua Madrilén

Gonzalez: «Beti bezala ETaren asmoa desestabilizatzea izan da»

Espainiako agintari eta buruzagi politikoek gaitzetsi egin zuten atentatua

Espainiako agintari eta buruzagi politikoek atzo goizeko atentatua gaitzesteko adierazpenak egin zituzten egunean zehar. Felipe Gonzalez Espainiako Gobernuako jarduneko lehendakariak «hilketa izugarritzat» jo zuen atzoko atentatua. «Beti bezala ETaren asmoa desestabilizatzea izan da», adierazi zuen Kopenhagetik, Europako Kontseiluaren atzoko bileraren amaieran.

KOPENHAGE-MADRIL

Felipe Gonzalez Espainiako jarduneko gobernuburuak Armadaren kontrako atentatu bat izan dela azpimarratu zuen atzo Kopenhagetik egindako adierazpenetan. Europako Kontseiluaren bilerara sartu aurretik «hilketa izugarritzat» jo zuen Madrileko gertaera eta Corcuera Barne ministroarekin hitz egin ondoren erantzulea ETA dela konbentziturik zegoela adierazi zuen. «Armadaren kontrako izugarritzat» laidoa dela gaineratu ahal dut bakar bakarrik», esan zuen Felipe Gonzalezek. Europako Komunitateko buruzagiekin izan zuen bilera amaitutakoan, atentatuaren atzean ETaren «desestabilizatze asmoa» dagoela nabarmendu zuen Espainiako jarduneko gobernuburuak. «Oso argi dago zer adierazten duen honek ETaren aldetik hauteskundearen ostean. Agerikoa da Armadaren kontrako atentatua izan dela, Bosnian betetzen ari den lanagatik iritzi publikoaren aurrean begirune handia duen unea», esan zuen Gonzalezek Kopenhagen. «Beti bezala ETaren asmoa desestabilizatzea izan da, eta nukleorik gogorrena zauritzea», gaineratu zuen. «Ez du merezi balorazio politikorik egiterik», jarraitu zuen, «benetan atentatu kriminal bat izan da, Armadaren kontra zuzenduta. Oso agerikoa da eta ezinezkoa da kriminal hauen buruan sartzea jakiteko zeren arabera egin duten atentatu hau une honetan».

Defentsa Ministerioaren agiri baten bidez, Julian Garcia Vargas jarduneko Defentsa ministroak ziurtatu egin zuen gertatutakoak ez dituela «Armadaren bake bozkazioa eta eredugarritasuna aldaraziko».

Juan Carlos I Espainiako erregea harremanetan izan zen egun osoan agintari zibil eta militarre-



Lehen planoan, militarren furgioa auto-bonbaren leherketaren ondoren.

EFE

✓ **Nazioartekoen artean, Europako Legebiltzarren, Aita Sainduaren eta John Major Erresuma Batuko lehen ministroaren gaitzespenak aipa daitezke.**

kin atentatuaren ondorio zehatzten berri izan ahal izateko. Atentatuaren eraginez, Juan Carlos I erregeak ez du parte hartuko Defentsako Ikasketen Zentru Nagusiko ziklo akademiakoaren amaiera ekitaldian.

Atentatuaren gaitzespenei dagokionez, nazioartekoen artean, Europako Legebiltzarrak, Aita Sainduak eta John Major Erre-

suma Batuko lehen ministroak ezagutzera emandakoak aipa daitezke.

FRAGA ETA AZNAR GOGOR

Espainiako politikarien artean, Manuel Fraga Gali-zako Xuntako lehendakariak esandakoa aipa daiteke. «Nire ustez, espainiarren gehiengoak Gobernuaren erantzun tinko eta

sendoa eskatzen du, duela egun batzuk hauteskundeetan adierazten legitimitate demokratikotik», esan zuen Manuel Fragak. «Hitzetik ekintzetara pasatzeko unea etorri da, propaganda instituzionaletik jazarpen polizial gordinera», gaineratu zuen Fragak.

Jose Maria Aznar PPko lehendakariak «terroristentzako zigorrak osorik betetzea» eskatuko duela adierazi zuen atzo bere alderdiko Zuzendaritza Batzordearen aurrean. «Bergizarteratzeko ahaleginek ezin dute izaera indiskriminatu izan, ez denboran ezta pertsonengan ere», gaineratu zuen.

PSOEk agiri baten bidez gaitzetsi zuen atzoko atentatua. PSOEren ustez, «krimen basati eta justifikaezin hauek» erantzun sendo bat izan behar dute, «baina lasatasunetik».

Jordi Pujol Kataluniako Generalitateko lehendakariaren ustez, «gainberan egon arren ETak kolpe gogor eta oso mingarriak eman ditzake, baina erabat alferrikakoak, gizarte espainiarrak erakutsi duelako horrelako gertaeren aurrean amorarik ez ematen badakiela».

Rosa Conde Gobernuako jarduneko bozeramalearen iritziz, «hiltzaile batzuek bakarrik burutu ahal izan dute atentatu izugarri hau». Joaquin Leguina Madrileko Elkarteko lehendakariak «gaitzespen politikoa baino gehiago kondena judiziala eta urte askotako kartzela» behar dela esan zuen atentatuan zaurituta ikustera Princesa ospitalera iritsi zenean.

HB: «Atentatuaren irakurketa politiko egokia egin behar du Gobernuak»

DONOSTIA

Madrileko atentatua zela eta, HBk bere «kezka» azaldu zuen «Hego Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko enfrentamenduaren adierazpen biolentoengatik», eta Pello Mariñelarenaren heriotza eta Txuma Olaberriren zauri larriak ere gatazkaren adierazpen biolentoak direla gaineratu zuen. «Elkarriketaren bidez bake iraunkorra lortzeko konpromezu tinkoa» agertu zuen HBk prentsa oharrean.

«Deklarazio eta mezu interesatuak alde batera utziz, gertaeren irakurketa politiko egokia egiteko» eskatu zion HBk Felipe Gonzalezen gobernuari. Bere ustez, enfrentamenduaren jatorria «autodeterminazio eskubidearen ukazioa» da, «Euskal Herriak autodeterminazioan oinarritutako bakea izateko eskubidea du eta indarkeriari amaiera emateko bide demokratiko bakarra ukatzen digutenak larritasun handiko bidegabekeria egiten ari dira gure herriarekiko».

Hau dela eta, deia egin zion gobernu berriari «negoiazioari ausardia politikoz ekiteko, Hego Euskal Herrian normalizazio demokratikoa eta Estatuarekin adostutako elkarbizitza baketsua ezartzeko».

Garraixi Isilak 132 kontzentrazio antolatu ditu

BILBO

Garraixi Isila koordinakundeak isileko 132 kontzentrazio antolatu ditu gaurko, Madrilén izandako atentatuak direla eta protesta egiteko. «Hurrengo orduotan elkarriketaren eta negoziatioaren aldeko dei zinikoak entzungo ditugu berriro ere, eta ikusiko dugu presoan giza eskubideen alde joan den egunotan mobilizatu direnak isilik nola geratzen diren giza eskubideen bortxaketa handiena den hilketaren aurrean» dio Garraixi Isilak atzo zabaldu zuen agirian.

Armak berehala uzteko eskatu dio koordinakunde honek ETari, «bere indarkeria behin eta berriz gaitzetsi duelako herri honen gehiengoak». «ETak hiltzen duenean» dio Garraixi Isilak, «bere izenean egiten du, edo bestela, bere hilketak babes-ten jarraitzen duen gutxiengo baten izenean».

Nafarroako Gobernuaren eta Parlamentuaren gaitzespena

A.U. / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak agiri bana kaleratu zuten atzo Madrileko atentatuak gaitzesteko. Miguel Sanz Gobernuako lehendakariordeak irakurri zuen oharra zioenez, Juan Cruz Alliren gobernu taldeak «gogor gaitzesten ditu ekin-tza basati hauek, beren egileak eta politikoki sostengatzen dituztenak Zuzenbideko Estatuan elkarbizitzeko gauza ez direla besterik ez baitute erakusten, herriarrek hau askatasun osoz aukeratu duten arren».

Honekin batera, Nafarroako Gobernuak doluminak eman dizkie hildakoen senideei eta elkartasuna adierazi die Espainia-

ko Segurtasun Indarrei, «Espainiaren zerbitzura egin ohi dituzten safrizioengatik».

Azkenik, «terrorismoari aurre egiteko» laguntza eskatu die herriarrei Iruñeko exekutiboak. Nafarroako Gobernuaren esanetan, «terrorismoa alternatiba politikoa gisa sostengatzen edo justifikatzen dutenek gure gaitzespena baino ez dute merezi, beraien jokabideak horrelako gertaera basatiak dakartza eta».

Foru Parlamentuak antzeko gaitzespena egin zuen. Atentatuak salatzeaz gain, «lasaitasunari eta soseguari eusteko» dei egin zien herriarrei, espainiarren izpiritu demokratikoa bakea eta askatasuna defenditzeko bermagarri hoberena delakoan.